



Kontsumitzaileak babesteko neurriak, ehorzte-zerbitzuen prezioari dagokionez (martxoaren 29ko SND/298/2020 Aginduaren seigarren artikulua); neurriak indarrean egongo dira alarma-egoera bukatu arte

EHORZTE ZERBITZUAK

Alarma-egoerak iraun bitartean, **ehorzte-zerbitzuen prezioak ezin dira 2020ko martxoaren 14a baino lehen indarrean zeudenak baino altuagoak izan.**

Hori bermatzeko, zerbitzua kontratatu aurretik, ehorzte-zerbitzua ematen duten enpresek aurrekontua emango diete erabiltzaileei, kontzeptu guztiak xehatuta eta 2020ko martxoaren 14a baino lehen indarrean zituzten prezioen zerrenda atxikita.

Alarma-egoeraren ondorioz zerbitzu edo produkturen bat ezin bada erabili edo eman eta dagoeneko ordainduta badago, zerbitzu edo produktu horren dirua itzuli behar zaio erabiltzaileari.

Azkenik, 2020ko martxoaren 14an indarrean zeudenak baino prezio altuagoak kobratu dituzten enpresek aldea itzuli beharko diete erabiltzaileei. Ezingo balitz horrelakorik egin, erabiltzaileak sei hilabete izango ditu alarma-egoera bukatzen denetik, dirua itzultzea eskatzeko.

Arau-haustetzat hartuko da aipatutako betebeharrorietako edozein ez betetzea.

Ainhoa Orrantia
Kontsumo Saileko Arduraduna
TOLOSALDEKO KIUB

